

[Eusk/Cast] Se presenta publicamente "Askatasunaren Bidean"

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 21/05/2016

Esta mañana se ha presentado publicamente junto al teatro Arriaga de Bilbo "Askatasunaren Bidean", nuevo colectivo crítico con la línea oficial de la Izquierda Abertzale

Prentsaurreko testua:

[Euskara]

ASKATASUNAREN BIDEAN

Euskal preso eta iheslari ohiren batzarra

Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduko militanteak gara, belaunaldi desberdinetako gizon-emakume abertzale eta sozialista iraultzaileak. Euskal Herri Langilearen askapen nazional eta sozialaren aldeko borrokan aritu izan gara gaztetandik: Independentzia, Sozialismoa, Birbatasuna eta Berreuskalduntzea, euskal abertzaletasun iraultzailearen lau ardatzak. Duela ia 50 urte aldarrikatua izan zen gure borroka internacionalismo proletarioaren baitan kokatzen dela, inperialismo eta sozial txobinismo guztien aurka. Geroago errotu ziren gure helburuetan Feminismoa eta Ekologismoa. Xede askatzaile hauen aldeko militantzian bizi behar izan ditugu sasia, jazarpena, ihesaldia, erbestea, atxiloketa, tortura, espetxea, etxeko zein hurbilen sufrimendua eta kide askoren heriotza eta hilketa.

Abertzaletasun iraultzaileak Euskal Herri Langilearen askatze global eta integrala bilatzen du, zapalkuntza mota guztien ukazio erradikala. Euskal Herri Langilea talde eta sektore zapaldu orok osatzen dute, bereziki eta nagusiki, Langile Klasea. Horregatik, Euskal Herri Langilearen borroka izaera sozialista iraultzailea du, bere zabal eta sakonean. Euskal langileon klase kontzientzia nazionala da Euskal Iraultzaren motor subjektiboa.

Urte luzeak Euskal Herritik kanpo eman ondoren, erbestetik itzuli edota espetxetik irten garenean haxe ikusi dugu: XXI. mendearen hasiera honetan Euskal Herri Langileak sufritzen dituen zapalkuntzek funtsean bere horretan dirautela, bai arlo sozialean nola nazionalean, hala patriakatuaren menperakuntzan nola kulturalki ere, Euskara eta euskaldungoaren desagertze prozesuaren aurrerakadetan, Ama Lurraren suntsitze etengabea, eta are bortizkiago borrokan segitzen duten guztien aurkako errepresioan. Frantzia eta Espainiako oligarkia inperialisten tresna gupidagabeak diren bi estatu zapaltzaileek Euskal Herri Langilea zatitzen, zapaltzen, esplotatzen, erdalduntzen, militarki okupatzen eta miseria gorrira kondenatzen jarraitzen dute etengabe, burgesia basko-espainol autonomistaren ezinbesteko kolaborazioarekin. Zapalkuntza gordin eta odoltsu hauek are gogorrago bilakatu ziren Kapitalismoaren krisi orokorrak eztanda egin zuenetik, 2006-2008 urteetan. Eta geroztik areagotu egin dira.

Egunero pairatzen ditugu Euskal Herri Langilearen aurkako zapalkuntza gero eta handiagoak: langabezia, pobrezia, etxegabetzeak eta prekaritatea; lan istripu lazgarriak; esplotazio ekonomiko zorrotza; soldaten eta lan baldintzen degradazio progresiboa; hezkuntza, osasungintza eta zerbitzu sozialetan murrizketa kriminalak...

Hori da sistemak euskal langile guztioi, -obrero, enplegatu, behargin, nekazari, arrantzale edota intelektual-, hots, soldatapeko esklabuoi eskaintzen digun etorkizuna. Miseria. Errepresioa. Hori, eta gainera, emakumeon aurkako bortizkeria eta terrorismo patriarkal etengabea, zapalkuntza nazionala eta gure aberriaren okupazio militarra, Euskararen desagertze progresiboa eta euskaldunen aurkako etnozidioa, atxiloketak, zentsura, tortura, espetxea, intoxikazioa eta kontsumismo neurotikoa. Estatu espainolak eta frantsesak biolentziaren monopolioa berreskuratu dute azkenean, eta gupidagabeki baliatzen dute gu zapaltzeko.

Preso eta iheslari ohiak izateak ez gaitu militante ohi bihurtzen. Aitzitik, militante abertzale eta sozialista iraultzaile izaten jarraitzen dugu. Gure lan, indar, gogoeta eta esperientziak, Euskal Herriaren askapen sozial eta nazionalaren aldeko borroka guztien zerbitzura ipini nahi ditugu.

Horrexegatik salatu nahi dugu Euskal Herri Langilearen aurrean, ozenki eta ahoan legarrik gabe, Ezker Abertzaleak azken zazpi urteotan burututako estrategia aldaketa ez dela borroka armatuaren amaierara bakarrik mugatu, baizik eta askoz urrunago ere joan dela. Hasieran gutxi batzuk “estrategia independentista eraginkor” gisa saldu zuten aldaketa hark, gaur egun, zazpi urte ondoren, Euskal Nazio Askapen Mugimendua krisi larrira eroan du.

Aldaketa estrategiko hau Ezker Abertzaleko frakzio erreformista batek egindako jokaldia izan da, ENAM, Euskal Iraultza eta abertzaletasun sozialista iraultzailea bera ere likidatzeko eta gure mugimendua sisteman integratzeko. Maniobra honek, hasierako lilura, euforia eta ilusioak urturik, etsipena, tristura, noraeza, desatxikimendua, mesfidantza, nahasmendua, despolitizazioa eta desmobilizazioa eragin ditu Euskal Herri Langilearen baitan, eta gure askatasun sozial eta nazionalaren aldeko borroka blokeatu egin du. Sakonki ahuldu eta indargabetu. Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduko militante abertzale eta sozialista iraultzaileak garen heinean, ezin dugu errotikako aldaketa oportunistak hau inolaz ere onartu. Urratsez urrats, Ezker Abertzalearen kontrola hartu duen frakzio erreformista ENAMen printzipio guztiak saltzen ari da. Lotsagabeki eta lotsagarriro.

ENAMen barnean beti izan da klase borroka, euskal burgesia txikiaren askotariko elementu erreformista zein oportunisten eta euskal langileriaaren militante abertzale eta sozialisten artean, mugimenduaren gidaritzak eta hegemonia nork lortuko. Borroka ideologiko eta organizatibo gordina izan da etengabe bi klase sozial hauen artean. Honek krisi eta zatiketa asko eragin ditu historian zehar, hemen xeheki aipatuko ez ditugunak. Euskal Herriaren historia luze-zabalean ere horrelako kinka larriak askotan gertatu izan dira. Hiru aipatzekotan, Bergarako besarkada XIX. mendean, Santoñan 1937an PNVk egindako traizio barkaezina, eta duela berrogei urte inguru, PM-EIA-Euskadiko Ezkerraren damutze prozesu ustela.

Orain dela urte asko abiatu zen azken operazio politiko hau aurrekoen ildo bertsukoa da.

Mugarri kualitatiboki esanguratsu bat ezartzekotan, guk 2009ko azaroaren 14an kokatzen dugu. Egun horretan, Ezker Abertzalearen izenean Altsasun egindako prentsaurre tamalgarrian, frakzio erreformistak Mitchell printzipioak onartu zituen, itxuraz eta faltsuki ENAM osoaren ordezkaritza hartuz. Eta hori gezurra zen orduan eta are gezurrago da orain.

Mitchell printzipioak ez dira neutroak. Inperialismo anglosaxoiak diseinaturiko estrategia kontraintsurgentearen barnean kokatzen dira, munduan zehar Herri Langileen Nazio Askapen Mugimendu Iraultzaileen derrota eragiteko maila guztietan. Horrelaxe gertatu zen Irlandan eta beste hamaika tokitan ere. Jokaldi maltzur horrekin frakzio erreformistak eta bere aliatu oportunistek xake mate eman nahi izan zieten Euskal Nazio Askapen Mugimenduko sektore abertzale eta sozialista iraultzaileei. Eta aitortu behar dugu, modu autokritikoan, neurri handi batean lortu egin dutela.

Ondoren iritsi ziren ekimen eta agiri zaparrada: Zutik Euskal Herria!, Brusela eta Iruñeko adierazpenak, Lortu arte hitzarmena, Gernikako akordioa, Sortu alderdiaren legalizazioa, Bildu, Amaiur eta EHBildu koalizioen sorrerak, Segi, Ekin eta Askatasunaren disoluziak, Aieteko konferentzia, ETaren borroka armatuaren behin betiko amaiera, Norvegiako adar jotzea, Durangon zenbait preso ohik egindako prentsaurrea, EHBilduren (Bakerako) Euskal Bidea, Foro Soziala, EPPKren ildoak Amnistiaren aldeko borrokatik desbideratzeko maniobrak (2013ko agiria), “Rufi bidea” eta “Barrena ildoak”, espetxe legeria suntsitzailea eta epaile faxisten gezurrak onartuz, eta abar... Berezikiki esanguratsuak izan ziren erreformisten lider gorenak bere aurkako epaiketan etsaien aurrean Madrilen 2011an egin zituen adierazpenak.

Hasieran frakzio txiki eta isilpeko bat izan zena gaur egun erabat nagusitu da Ezker Abertzalean, egitura, antolakunde eta komunikabide guztietako liberatu, arduradun eta zuzendaritzak beren estrategia eta tesietara bilduz. Ondorioz, Euskal Herri Langilearen baitan etsipena eta desmobilizazioa areagotu egin dira, askapen nazional eta soziala bera ere arriskuan jarritz.

Operazio politiko honen atzean dagoen filosofia eta neolingua oportunista deseraiki eta desmuntatu behar ditugu atalez atal. Ideologia alienatzaile toxikoa da. Ez da egia garaitu eta garailerik gabeko bakea nahi eta behar dugula. Irabazleak gura ditugu: Euskal Herri Langilea eta gainontzeko Herri Langile guztiak; eta galtzaileak ere: Espainia eta Frantziako oligarkiak eta nazioarteko inperialismoa. Zapalduak eta zapaltzaileak.

Ez dugu maite nagusitzen ari den mintzaira bitxia, non klase sozialak “hiritargo” bilakatzen diren; klase borroka, “lan harreman”; Euskal Herri Langilea, “euskal gizarte/jendarte”; autodeterminazioa, “erabakitzeko eskubide”; Euskal Herriaren ukazioa, “defizit demokratiko”; Sozialismoa, “justizia sozial/eredu ekonomiko berri”; langileak, “hiritar/herritar”, burgesiaren esplotazioa, “elkarbizitza demokratiko”; Kapitalaren diktadura, “demokrazia”; zentsura eta inkisizioa, “tolerantzia”, estatuen biolentzia sistematikoa, “bake”; oligarkiek berreskuratu duten biolentziaren monopolioa, “normalizazio”; patriarkatuaren terrorismo etengabea, “genero biolentzia”; zapalduen exigentziak, “giza eskubide”; Ama Lurraren suntsitze ekoizidak, “garapen jasangarri”; Monarkiaren Berrezarkuntza neofrankista, “trantsizio demokratiko”; inperialismoa, “nazioarteko komunitate”; OTANen sarraskiak, “esku hartze humanitario”, tortura,

“gehiegikeria polizial”, burgesiaren lapur bandak, “alderdi demokratiko”; kapitalisten eraso kriminalak, “austeritate”; euskaldungoaren etnozidioa, “elebitasun orekatu eta Euskararen normaltze”, Amnistia, “gatazkaren ondorioen konpontze”, borrero eta torturatzaille faxistak, “terrorismoaren biktima”, okupazio indarrak, “legearen babesle”, burgesia baskoespainolaren zipaioak, “ertzain”; nagusi esplotatzaileak, “ekintzaile”, klase/nazio etsaien aurrean errenditzea, “bake/konponbide prozesu”, musutruk amore ematea, “aldebakartasun”, Euskal Iraultza, “iraganeko fase eta estrategia”; armak etsaiari oparitzea, “jarduera armatutik eratortzen diren egiturei eta baliabideei irtenbide emate”, oportunisten esanetara jartzea, “indarrak bildu eta akordioak lortu”, gatazka eta dialektika iraultzailea, “transbertsalitate”, kolonizazioa, “aniztasun”...

Bi hizkera, filosofia eta terminologia hauek, alde batetik erreformista, oportunista zein instituzionalista eta bestaldetik abertzale sozialista iraultzailea, talka egiten ari dira egunero argiro eta ezinbestez, hala teoriarik nola praktikan ere. Batasuna ezinezkoa da mugimendu berean bi estrategia guztiz kontrajarriak eta ildo erabat antagonikoak direnean. Batzuk sistema kapitalista frantses eta espainolaren joko, arau eta instituzioetan integratu nahi dira eta besteok, aldiz, sistema zapaltzaile hau errotik birrindu eta suntsitu nahi dugu, Euskal Herri euskaldun, independente, birbatu eta sozialista eraiki ahal izateko. Horrelako krisi estrategiko sakon eta larrietan gehiengo/gutxiengo jokoek ez dute sekulan funtzionatu. Inoiz ez.

Amnistiaren inguruko bataila teoriko, ideologiko eta soziopolitikoan ageri da, modu paradigmaticoan, bi estrategien arteko talka bizia. Erreformistek Amnistia alde batera utzi zuten hasieran, beren eskema ustez errealista, moderatu eta instituzionalistetan Amnistia Osoak eragin eta suposatzen duen 78ko erregimen neofrankistarekiko haustura zinez demokratikoa ezinezkotzat jotzen zutelako. Ondorioz, bide posibilistak jorratzeari ekin zioten, irtenbide indibidualak bultzatuz eta EPPK estatu zapaltzaileen legeria suntsitzaila onartzera etengabe behartuz, horrela bi oligarkiek euskal preso eta iheslari politikoen aurkako politika hiltzaile eta kriminala pittin bat bederen leunduko zutelakoan. Posibilismoaren miseria, zeren bide horretatik hobekuntza txikiak ere ezinezko egiten baitira, etsaiak indartsu eta irabazle sentitzen direlako. Sokatiraren dinamikaren adibidea...

Deriba honen aurrean ENAMeko militante batzuk Amnistiaren aldeko eta Errepresioaren aurkako Mugimendua antolatzea erabaki zuten. Erreformismoaren erreakzioa gogor eta fulminantea izan zen. Anatemak eta eskumikatzak. Baina mugimenduak aurrera jo zuen, Euskal Herri osora hedatuz. Indartu ere egin zen, Euskal Herri Langilearen sektore gero eta zabalagoetan erroturik, gazteengan bereziki. Eta mobilizatzeari ekin zion.

Hura ikusirik, erreformistak taktikaz aldatu dira azkenaldion. Amnistia hitza ez da jadanik tabu beren hizkeran, berriki arte izan den bezalaxe, eta terminoa erabiltzen hasiak dira, bere eduki askatzaile eta iraultzaileaz hobeki husteko. Zutik Euskal Herria! agiriaren garaian ere, gauza bera egin zuten desobedientzia eta erresistentzia zibilarekin. Ezker Abertzalearen oinarri sozialak sinetsi zien. Zergatik ez orain? Borondate onez beteriko militante askok irentsi dute amu hori. “Amnistiaren norabidean” itxuraz, baina benetan “Rufi/Barrena bidea” defenditzen da hortzez eta haginez

Gaur egun jendea honetaz guztiaz ohartzen hasia da. Gezurrak buztana labur... Ezker

Abertzale erreformistak baliabide handiak ditu, bere garaian Euskadiko Ezkerrak ere eduki zituen bezalaxe. Baina arrazoirik ez. Horregatik egiten dio uko aurrez aurreko eztabaida politiko estrategikoari.

ENAMen krisiaren larria kontuan hartuz, urtarrilean elkartzen hasi ginen zenbait preso eta iheslari ohi, hiru ardatzen inguruan:

1.- Borrokaren duintasuna mantentzea eta Euskal Herri Langilearen historia berridazteko zein manipulatzeko saiakera guztiei aurre egitea.

2.- Belaunaldi berriei etorkizun libre eta hobea eraikitzeko ateak ez ixtea.

3.- Errepresaliatu politikoei gure babes ematea eta etsaiaren xantaien aurrean amore ez emateagatik bat bera ere bide bazterrean botata geldituko ez dela jakinaraztea. Denok ala inor ez! Dena ala ezer ez!

Gure konpromiso eta engaiamendu militantea berresten dugu Euskal Herri Langilearen Askatasun Osoaren aldeko borrokarekin eta Euskal Nazio Askapen Mugimendua berreraikitzekeko estrategiarekin, eta bi helburu hauen aldeko ekimen guztiak lagundu eta babestuko ditugu geure indar guztiez.

Beste hamaika gogoeta eta iritzi esango genituzke, baina kontu jakina da Espainiako Erresuman ez dagoela inolako adierazpen askatasunik, eta oligarkia neofrankistaren morroi eta zakurrek gogorki zigortzen dituztela ideia eta planteamendu zinez iraultzaile oro. Eta berdin gertatzen dela burgesia frantses etnozida eta inperialistaren V. Errepublikaren totalitarioan. Oso konsziente gara horretaz. Beraz, zenbait kontu golkoan gelditu dira.

Deiadar egin nahi diegu Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren helburu historikoekin identifikatzen diren militante abertzale eta sozialista iraultzaile guztiei, herriz herri eta auzoz auzo autoantola daitezela herri batzarretan edota egoki iruditzen zaientz moldean, Euskal Herri Langilearen askapen nazional eta sozialaren aldeko borroka aurrera eramateko, Euskal Estatu Sozialistaren bidean. Euskal Herria askatzeko borrokan, nork bere tokia har dezala, gogo eta indarren arabera.

Gora Euskal Herria, askatuta eta sozialista!

Jotake, irabazi arte!

EUSKAL HERRI LANGILEAREN ASKATASUN OSOA HELBURU, BORROKA DA BIDE BAKARRA

[Castellano]

ASKATASUNAREN BIDEAN

Euskal preso eta iheslari ohiren batzarra

Somos militantes del Movimiento de Liberación Nacional Vasco, hombres y mujeres abertzales y socialistas revolucionarias de diferentes generaciones. Desde jóvenes hemos luchado a favor de la liberación nacional y social del Pueblo Trabajador Vasco y de los cuatros ejes del nacionalismo revolucionario: Independencia, Socialismo, Reunificación y Reeuskaldunización. Hace cerca de 50 años fue proclamado que nuestra lucha se sitúa en la línea del internacionalismo proletario, contra todos los imperialismos y socialchovinismos. Más tarde se enraizaron entre nuestros objetivos el Feminismo y el Ecologismo. En la militancia a favor de estos ideales liberadores hemos tenido que vivir la clandestinidad, la persecución, la huida, el exilio, la detención, la tortura, la cárcel, el sufrimiento tanto de nuestros familiares como de nuestras personas cercanas y queridas, y la muerte y el asesinato de muchas de nuestras compañeras y compañeros.

El nacionalismo revolucionario siempre ha perseguido la liberación global e integral del Pueblo Trabajador Vasco, es la negación radical de todas las formas de opresión. El Pueblo Trabajador Vasco está formado por todos los grupos y sectores oprimidos, de forma especial y principalmente por la Clase Obrera. Por eso, la lucha del Pueblo Trabajador Vasco tiene un carácter socialista revolucionario, en toda la extensión y profundidad que tiene este termino. El motor subjetivo de la Revolución Vasca es la conciencia nacional de clase.

Después de pasar largos años fuera de Euskal Herria, cuando hemos vuelto del exilio y/o salido de la cárcel esto es lo que hemos visto: en este comienzo del siglo XXI, las opresiones que sufre el Pueblo Trabajador Vasco siguen fundamentalmente siendo las mismas, tanto en el ámbito social como en el nacional, tanto en la dominación patriarcal como en la cultural, en los avances en el proceso de desaparición del Euskera y de la comunidad lingüística euskaldun, en la destrucción constante de la Madre Tierra, y aun más violentamente en la represión contra las y los que siguen en la lucha. Los estados opresores, que son herramientas implacables de las oligarquías de Francia y España, siguen constantemente dividiendo, oprimiendo, explotando, erdaldunizando, ocupando militarmente y condenando a la miseria extrema al Pueblo Trabajador Vasco, con la imprescindible colaboración de la burguesía autonomista vasco-española. Estas opresiones crudas y sangrientas se volvieron aun más duras a partir del estallido de la crisis global capitalista, durante los años 2006-2008. Y desde entonces se han ido progresivamente intensificando.

Sufrimos todos los días las opresiones cada vez más grandes que se llevan a cabo contra el Pueblo Trabajador Vasco: el paro, la pobreza, los desahucios y la precariedad; los terribles accidentes laborales; la explotación económica implacable; la degradación progresiva de los salarios y de las condiciones de trabajo; los recortes criminales en educación, sanidad y servicios sociales... Este es el futuro que el sistema ofrece a todas y todos los trabajadores vascos -obreras, empleados, operarias, agricultores, arrantzales y/o intelectuales- es decir, a las esclavas y esclavos asalariados. Miseria y represión.

Eso, y ademas, la constante violencia y terrorismo patriarcal contra las mujeres, la opresión nacional y la ocupación militar de nuestra patria, la desaparición progresiva del Euskera y el

etnocidio contra los euskaldunes, la censura, la tortura, la cárcel, la intoxicación y el consumismo neurótico. Los estados español y francés han recuperado al fin el monopolio de la violencia, y lo utilizan despiadadamente para oprimirnos.

Ser ex-presos y ex-refugiados no nos convierte en ex-militantes. Al contrario, seguimos siendo militantes abertzales y socialistas revolucionarios. Queremos poner al servicio de la liberación nacional y social de Euskal Herria nuestro trabajo, energía, reflexiones y experiencias.

Por eso mismo queremos denunciar ante el Pueblo Trabajador Vasco, en voz alta y sin pelos en la lengua, que el cambio de estrategia realizado por la Izquierda Abertzale en estos últimos siete años no se ha limitado solamente al fin de la lucha armada, sino que ha ido mucho más lejos. Aquel cambio que al principio unos pocos vendieron como la “estrategia independentista eficaz”, hoy en día, siete años después, ha llevado al Movimiento de Liberación Nacional Vasco a una grave crisis.

Este cambio de estrategia ha sido una jugada hecha por una fracción reformista de la Izquierda Abertzale, para integrar nuestro movimiento en el sistema y liquidar el MLNV, la Revolución Vasca y hasta el propio abertzalismo socialista revolucionario. Esta maniobra, una vez disipadas las ilusiones, euforias y fascinaciones iniciales, ha creado en el seno del Pueblo Trabajador Vasco frustración, tristeza, desapego, desconfianza, confusión, despolitización y desmovilización, y ha bloqueado nuestra lucha de liberación nacional y social. La ha desactivado y debilitado profundamente. En la medida que somos militantes del Movimiento de Liberación Nacional Vasco, no podemos de ninguna manera aceptar este cambio oportunista radical. Paso a paso, la fracción reformista que ha tomado el control de la Izquierda Abertzale está traicionando todos los principios del Movimiento de Liberación Nacional Vasco. De forma vergonzosa en nuestra opinión, pero sin ninguna vergüenza por su parte.

La lucha de clases en el seno del MLNV siempre ha existido, entre los numerosos elementos reformistas y oportunistas de la pequeña burguesía vasca y los/las militantes abertzales y socialistas revolucionarias de la clase obrera vasca, para lograr la dirección y la hegemonía en el movimiento. Ha habido una cruda lucha ideológica y organizativa entre estas dos clases sociales. Este hecho ha producido muchas crisis y escisiones a lo largo de la historia, que no mencionaremos detalladamente aquí. En la amplia y larga historia del Pueblo Vasco también han sucedido muchas veces situaciones extremas parecidas. Por citar solamente tres, el abrazo de Bergara en el siglo XIX, la traición imperdonable cometida por el PNV en 1937 en Santoña, y hace cerca de cuarenta años, el putrefacto proceso de arrepentimiento de lo que en su día fue el bloque conformado por la organización PM, EIA y Euskadiko Ezkerra. Esta operación que se inició hace muchos años es de una orientación parecida a las anteriores. Por poner un hito cualitativamente significativo, nosotras y nosotros lo situamos en el 14 de noviembre de 2009. Aquel día, en la lamentable rueda de prensa realizada en nombre de la Izquierda Abertzale en Altsasu, la fracción reformista aceptó los principios Mitchell, tomando la representación de todo el MLNV aparentemente y de forma falsa. Y eso era mentira entonces y lo es aún más hoy en día.

Los principios Mitchell no son neutros. Se sitúan dentro de la estrategia contrainsurgente diseñada por el imperialismo anglosajón, para provocar en todo el mundo la derrota de los Movimientos Revolucionarios de Liberación Nacional de los Pueblos Trabajadores a todos los niveles. Así ha sucedido en Irlanda y en muchos otros sitios. Con esta astuta jugada, la fracción reformista y sus aliados y aliadas oportunistas quisieron dar jaque mate a los sectores abertzales y socialistas revolucionarios del Movimiento de Liberación Nacional Vasco. Y tenemos que confesar, de manera autocrítica, que en gran medida lo han conseguido. Después vino un chaparrón de iniciativas y comunicados: el documento Zutik Euskal Herria!, las declaraciones de Bruselas e Iruñea, el pacto Lortu arte, el acuerdo de Gernika, la legalización del partido Sortu, el nacimiento de las coaliciones Bildu, Amaiur y EHBildu, la disolución de las organizaciones Segi, Ekin y Askatasuna, la conferencia de Aiete, el fin definitivo de la lucha armada de ETA, la tomadura de pelo en Noruega, la rueda de prensa que algunos y algunas ex-presas dieron en Durango, la vía vasca hacia la paz de EHBildu, el Foro Social, las maniobras para desviar al EPPK de la línea de la Amnistía (el comunicado de 2013), la “vía Rufi” y “la línea Barrena”, aceptando la legislación penitenciaria destructora de los y las presas políticas vascas, y las mentiras de los y las jueces fascistas, etc... Fueron especialmente significativas las declaraciones que el líder supremo del reformismo hizo en el juicio en su contra en Madrid, en 2011.

Lo que al principio fue una pequeña y secreta fracción se ha convertido en algo totalmente mayoritario hoy en día en la Izquierda Abertzale, atrayendo hacia sus tesis y estrategia a los y las liberadas, responsables y direcciones de todas las estructuras, organizaciones y medios de comunicación de ésta.

Como consecuencia de esto, se han acentuado en el seno del Pueblo Trabajador Vasco la decepción y la desmovilización, poniendo en peligro hasta la misma liberación nacional y social. Tenemos que desmontar y deconstruir la filosofía y la neolingua que están detrás de esta operación política. Es una ideología tóxica y alienante. No es verdad que queramos y necesitemos una paz sin vencedores y vencidos. Queremos vencedores: el Pueblo Trabajador Vasco y el resto de los Pueblos Trabajadores. Y queremos vencidos: las oligarquías de Francia y España y el imperialismo internacional. Los opresores y los oprimidos.

No nos gusta la curiosa lengua que se está haciendo mayoritaria, en la cual las clases sociales se transforman en “ciudadanía”; la lucha de clases, en “relaciones laborales”; el Pueblo Trabajador Vasco, en “sociedad vasca”; la autodeterminación, en “derecho a decidir”; la negación de la existencia del Pueblo Vasco, en “déficit democrático”; el Socialismo, en “justicia social” o en “modelo económico nuevo”; los y las trabajadoras, en “ciudadanos y ciudadanas”; la explotación de la burguesía, en “convivencia democrática”; la dictadura del Capital, en “democracia”; la censura y la inquisición, en “tolerancia”; la violencia sistemática de los estados, en “paz”; el monopolio de la violencia que han recuperado las oligarquías, en “normalización”; el incesante terrorismo patriarcal, en “violencia de género”; las exigencias de oprimidas y oprimidos, en “derechos humanos”; las destrucciones ecocidas de la Madre Tierra, en “desarrollo sostenible”; la Restauración neofranquista de la Monarquía, “transición democrática”; el imperialismo, en “comunidad internacional”; las masacres de la OTAN, en “intervenciones humanitarias”; la tortura, en

“excesos policiales”; las bandas de ladrones de la burguesía, en “partidos democráticos”; las agresiones criminales de los capitalistas, en “austeridad”; el etnocidio de la comunidad lingüística euskaldun, en “bilingüismo equilibrado” y “normalización del Euskera”; la Amnistía, en “solución a las consecuencias del conflicto”; los verdugos y torturadores fascistas, en “víctimas del terrorismo”; las fuerzas de ocupación, en “defensores de la ley”; los cipayos de la burguesía vasco-española, en “ertzainas”, los patrones explotadores, en “emprendedores”; rendirse ante el enemigo nacional y de clase, en “proceso de paz y resolución del conflicto”; ceder por la cara, en “unilateralidad”; la Revolución Vasca, en “fase y estrategia del pasado”; regalarle las armas al enemigo, en “dar solución a los instrumentos y las estructuras que se derivan de la actividad armada”; ponerse a las órdenes de los oportunistas, en “acumular fuerzas y lograr acuerdos”; el conflicto y la dialéctica revolucionarias, en “transversalidad”, la colonización, en “pluralismo y diversidad”...

Estas dos filosofías, formas de hablar y terminologías, por un lado la reformista y oportunista, y por otro la abertzale socialista revolucionaria, chocan frontalmente todos los días de forma clara e inevitable, tanto en la práctica como en la teoría. La unidad es imposible cuando en el mismo movimiento existen estrategias totalmente contrapuestas y líneas políticas absolutamente antagónicas. Algunos y algunas se quieren integrar en el juego, normas e instituciones del sistema capitalista español y francés, otros y otras, por el contrario, queremos destruir y hacer añicos el sistema de raíz, para poder construir una Euskal Herria euskaldun, independiente, reunificada y socialista. En crisis estratégicas tan graves como ésta, los juegos de mayoría/minoría nunca han funcionado. Jamás.

En la batalla teórica, ideológica y sociopolítica en torno a la Amnistía se revela, de modo paradigmático, el choque frontal entre las dos estrategias. Los y las reformistas dejaron de lado la Amnistía al principio, porque consideraban, en sus esquemas pretendidamente realistas, moderados e institucionalistas, que la ruptura realmente democrática con el régimen neofranquista del 78 que suponía y acarreaba la Amnistía Total era imposible. En consecuencia, comenzaron a transitar por vías posibilistas, apoyando salidas individuales y obligando constantemente al EPPK a aceptar la legalidad destructora de los estados opresores, pensando así que las dos oligarquías ablandarían siquiera un poco su política asesina y criminal contra los y las presas y refugiadas vascas. Miseria del posibilismo, porque por ese camino hasta las más pequeñas mejoras se hacen imposibles, ya que los enemigos se sienten fuertes y vencedores. El ejemplo, la dinámica de la sokatira: si dejas de tirar...

Ante esta deriva, militantes del MLNV decidieron organizar el Movimiento por la Amnistía y contra la Represión. La reacción del reformismo fue dura y fulminante. Anatemas y excomuniones. Pero el movimiento siguió adelante, extendiéndose a todo Euskal Herria. También se fortaleció, enraizándose en sectores cada vez más amplios del Pueblo Trabajador Vasco, especialmente entre los y las jóvenes. Y comenzó a movilizarse.

Viendo todo esto, el reformismo ha cambiado de táctica últimamente. La palabra Amnistía

ya no es tabú en su lenguaje, como ha sido hasta hace muy poco, y han comenzado a utilizar el término, para mejor vaciarlo de su contenido liberador y revolucionario. Hicieron lo mismo con la desobediencia y la resistencia civil en la época de la ponencia Zutik Euskal Herria! La base de la Izquierda Abertzale les creyó. ¿Por qué no ahora? Muchas y muchos militantes llenos de buena voluntad han tragado ese anzuelo. Aparentemente los reformistas ahora se sitúan “en la dirección de la Amnistía”, pero en realidad, defienden la “vía Rufi/Barrena” con uñas y dientes.

Hoy en día la gente comienza a darse cuenta. La mentira tiene las patas cortas. La Izquierda Abertzale reformista tiene muchos recursos, como los tuvo en su día Euskadiko Ezkerra. Pero no tiene razón. Por eso se niegan a participar en cualquier debate político estratégico cara a cara.

Teniendo en cuenta la gravedad de la crisis del MLNV, en enero de este año empezamos a juntarnos algunos y algunas ex-presas y ex-refugiadas, en torno a tres ejes:

- 1.- Mantener la dignidad de la lucha, y hacer frente a todos los intentos de manipulación y reescritura de la historia del Pueblo Trabajador Vasco.
- 2.- No cerrar las puertas a un futuro libre y mejor a las nuevas generaciones.
- 3.- Dar nuestra solidaridad a las y los represaliados políticos vascos, y hacerles saber que ni uno solo se va a quedar tirado al borde del camino por no ceder al chantaje del enemigo. Denok ala inor ez! Dena ala ezer ez!

Reafirmamos nuestro compromiso e implicación con la lucha a favor de la liberación del Pueblo Trabajador Vasco y la estrategia de reconstrucción del Movimiento de Liberación Nacional, y ayudaremos y apoyaremos con todas nuestras fuerzas todas las iniciativas a favor de estos objetivos.

Expresaríamos muchas mas opiniones y reflexiones, pero es algo sabido que en el Reino de España no hay ningún tipo de libertad de expresión, y que los perros y siervos de la oligarquía neofranquista reprimen duramente toda idea y planteamiento realmente revolucionario. Y que lo mismo pasa en la V República totalitaria de la burguesía francesa, etnocida e imperialista.

Queremos hacer un llamamiento a todos y todas las militantes abertzales y socialistas revolucionarias que se identifican con los objetivos históricos del Movimiento de Liberación Nacional Vasco, para que se autoorganicen pueblo a pueblo y barrio a barrio, en asambleas o de la manera que mejor les parezca, para llevar adelante la lucha por la liberación nacional y social del Pueblo Trabajador Vasco, en el camino del Estado Socialista Vasco. En la lucha para liberar a Euskal Herria, que cada una y uno tome su puesto, según sus fuerzas

y deseos.

Gora Euskal Herria, askatuta eta sozialista!

Jotake, irabazi arte!

EUSKAL HERRI LANGILEAREN ASKATASUN OSOA HELBURU, BORROKA DA BIDE BAKARRA!

<https://eh.lahaine.org/se-presenta-publicamente-quot-askatasunaren>